


# Irudimenean

Juan Ramón Makuso

## IRUDIMENEAN I

Irudia. Irudimenaren hasierako txertoa.  
Eta zure aurpegia ilargiaren isla.  
Marrazkia umearen hatz artean.  
Marra. Kolorea. Bidaiaren azken helmuga  
bidaiaririk ez zegoen geltokian.  
Azken besarkada. Bi ezpain eta bakardadea.  
Malkorik gabeko aurpegia. Aurpegia ez zen  
errepidea.  
Agian kale-kantoiaren zorrotasunaren ispilua  
agertzen zen beltza zen ibilbidean.  
Eta zu? (Hor zaudelakoan).  
Botila hutsik geratu da  
bakarrik zarataren erdigunean.  
Basamortuak inguratzen gaitu itsasoaren  
bakardadean.  
Eskua luzatzen duzu isiltasunaren  
garrasiaren eztean.  
Irudikatzen dut itsuaren begirada itsasoa agurtzean.  
Zapia astintzen du zuhaitzaren hostoak  
urruntzen den lurrina kulunkatuz.  
Idatzia dut maitale. Poeta dut etsai.  
Zurea naiz bakarrik nagoenean.  
Itacara abiatu naiz txartelik gabe

infinetua baitut helmuga oraindik abiatzea  
otu ez zaidanean.  
Bide bazterrean zaude Sofia eleak  
sobera laztantzen zaituenean.  
Agian maitasunaren izenean irudia agertzen da  
ispiluan  
eta irudimenean gaztearen begiradak  
maitemina du helmuga  
eta oihartzunak ezetz dio. Maitasuna ez da.  
Helmugarik gabeko bizitzan irudimena  
da bidea. Orainean heriotza. Ustezkoa baita  
bizitza. Eta zuk sor didazu hitza.  
Hesia gainditu du poesiak.  
Eta poetak ezin du gainditu bizitzaren larrimina.  
Nahi dut bizi irudimenaren gainetik errealitatearen  
mugan.



## IRUDIMENEAN II

Nire aurrean zaude ikusten ez zaitudanean.

Elurtearen erdian belardiaren gainean

irudia dut gogoan: irudimenaz

ikustea ikusi ezin dudana.

Itsasoaren kantoian haizearen orrazea

eskaintzen didate irudimenaren lehortean. ■

